



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

**ERABAKIA, 2024ko IRAILAREN 13koa, UPV/EHUko ERREKTOREARENA, AUP3L1-D00094-17 KODEA DUEN LANPOSTUA IRAKASLE ELKARTUEN 2024/07/30eko DEIALDITIK KANPO UZTEKOA**

---

Egiaztatu dira gertakari hauek:

**GERTAKARIAK**

**Lehena.** - 2024ko uztailaren 30ean UPV/EHUko webgunean deialdi bat argitaratu zen irakasle elkartuen kategoriako kontratuak esleitzeko.

**Bigarrena.** - Akats bat antzeman dugu deialdiko plazen zerrendan, AUP3L1-D00094-17 kodea duen lanpostua agertzen delako, Medikuntza eta Kirurgia Espezialitateak sailekoa.

**ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**Lehena.** - Kasu honetan honako hauek aplikatu behar dira: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko Erabakia, errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehaztekoa (otsailaren 12ko EHAA); eta aplikatu beharreko gainerako arauak.

**Bigarrena.** - Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeak eskumena du, eskumenak eskuordetuta, erabaki hau emateko, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko Erabakia dela bide.

**Hirugarrena.** - Bestalde, 39/2015 Legearen 109.2 artikulua honako hau dio:

*Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.*

Horregatik guztiagatik,

**Honako hau ERABAKI DUT**

**Lehena.** - Zuzentzea irakasle elkartuen 2024ko uztailaren 30eko deialdiko plazen zerrendan dagoen akatsa, eta, beraz, bertatik kentzea AUP3L1-D00094-17 kodea daukan plaza, Medikuntza eta Kirurgia Espezialitateak sailekoa.

**Bigarrena.** - Plazen zerrenda zuzendua UPV/EHUren webgunean argitaratzea.

## **ERREKURTSOAK**

Erabaki honen kontra aukerako berraztertze errekurtsua jar dakioke UPV/EHUko Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke zuzenean administrazioarekiko auzien Bilboko dagokion epaitegian bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta biharamunean zenbatzen hasita.

**ERREKTOREA / LA RECTORA,**  
Eskumenak eskuordetuta (2021/01/28ko Erabakia) / P.D.  
(Resolución de 28-01-2021)/  
**IRAKASLE-IKERTZAILEEN ARLOKO ERREKTOREORDEA / EL**  
**VICERRECTOR DE PERSONAL DOCENTE E INVESTIGADOR**

Izptua./Fdo.: Federico Recart Barañano

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea